

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

61. zenbakia

94ko abenduak 30



Urte berri on!



⇒ Eguneroko menua
⇒ Asteburuetan afariak
kartan

Tfnoa.: 88 39 60
Gudarien etorbidea
ORDIZIA

BILINTX

megadenda



- 800 m2
- Kultura eta Aisialdirako, denda kontzeptu berria.

MUSIKA
BIDEOAK
JOKU HEZIGARRIAK
ALDIZKARIAK
ETA LIBURU-SAIL GUZTIZ OSATUA

Fermin Calbeton, 21 - DONOSTIA. Tf.: 420080 / Fax: 420388

MARRON — ZAZPI HAUNDIAK

- ▲ Everest 8.848 m. — 1993-5-6
- ▲ Kilimanjaro 5.895 m. — 1994-5-3
- ▲ Makinley 6.236 m. — 1994-6-8
- ▲ Elbruk 5.633 m — 1994-7-25
- ▲ Kartenz Piramideak 5.542 m - 1994-10-26
- ▲ Vinson 4.897 m - 1994-12-5
- ▲ Aconcagua 6.960 m. 1994-12-26

Zorionak
Marron



GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfnoa: 88 87 02
BEASAIN



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO

BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA

KONTU KORRONTE ZENB.

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

Eman eta zabal zazu

GOIERRITARRAK

KULTUR ELKARTEA da eskuetan izaten duzun GOIERRITARRA aldizkariaren editorea, jakingo duzunez. Kultur Elkarte hau bultzatzeko (eta bi-debatez debalde jasotzen duzun hamabosterokoa sendotzeko) kanpaina bati ekin diogu, Goierriko kultur ondarea denon artean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginkizun ugari ditugu aurrez ikusirik: Goierriko herrien gehigarri bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin bazatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

Oharrak: honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazkideek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarrak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
 (Correos-gaitean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
 Jon Arano, Mikel Albisu.
Publizitatea:
 Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:
 Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
 Joseba Telleria, Mari Joxe Ma-
 dariaga, Izaskun Salazar, Ana
 Irastorza, Josune Amondarain,
 Gabino Murua, Aloña Galarra-
 ga, Antonio Bea, Edurne Ayuso,
 Iñaki Leturia eta Rufino Iraola.

Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 4.000 ale. 3.700 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Amagoia diseinatzaile grafikoa Ordizian

Amagoia Etxeberria amezketarrak 22 urte ditu eta notizi da bi alditan: batetik, gustokoa duen Ordizian D.Unanue plazan ipini du "Amagoia" diseinu grafiko-ko bulegoa; bestetik, Oñatiko "Oñatz" dantza taldeak bere 25. urtemuga dela eta eratu-
 tako logotipo lehiaketako 1. saria irabazi berria du.

Hasera polita beraz, beti-
 danik marrazki eta grafiko-
 zaletasuna bizi izan duen
 neska gazte honentzat. Do-
 nostiako Diseinu Eskolan
 ikasi du 5 urtez, geroz eta
 gehiago ugaltzen ari den
 lanbide berri hau. Piskanaka
 hasi da gero ikasitakoa apli-
 katzen eta pausu handiena
 orain eman du, lokala hartu
 eta bulegoa zabaltzarekin.
 Lagunei enkarguak egitetik
 profesionaltasunera egin du
 jauzi. Lan bikainak egin ditu
 orain arte: adib., Larraizko
 Nañarri sagardotegiko irudi
 korporatibo osoa bere esku
 egon da, beste zenbait jate-

txeetakoa ere, eta gainon-
 tzean, diseinu aurrerakoieko
 txartel eder ugari egin izan
 ditu kolore, paper, e.a. des-
 berdinekin. Argazkien erre-
 tokaje nobedoso bezain eze-
 zagun eta estimagarriak...

Lan hauek eskuz egiten di-
 ra lehenik eta ordenadore bi-
 dez eta inprentan gero; aero-
 grafiak ere esku-lanak dira.
 Enkarguak gustora hartzen
 ditu, beti ere bezeroen gus-
 toetara moldatuz, segun eta
 zein girotarako. "Mundu hau
 oso kreatiboa da eta ez dauka
 inolako mugarik; berria da,
 baina geroz eta eskaera
 gehiago daukagu. Lan bakoit-
 za oso diferentea da eta han
 eta hemen zer egiten den ikusi
 eta adi egon beharra dauka-
 gu; aldizkariak, diseinatzaile-
 ak-eta abiadura haundian
 mugitzen dira; zer esanik ez
 informatika eta programen
 mundua", dio. Bere inten-
 tzioak hortarako eta hortatik
 bizitzekoak dira. Animo!

Besteek esana

CAF eta AHTa

Nazioarteko merkatuetan
 CAFek duen papera, Banku
 Mundialak eta FMIk garatuta-
 ko politikak eta nazioarteko lan
 banaketaren proposamen "be-
 rriek" markatutakoa da, eta ez
 enpresaren balizko garapen
 teknologikoak markatutakoa;
 gogora dezagun goi teknologia
 Siemens, Alsthom,
 Mitsubishi...ren eskutan da-
 goela, eta CAF beti eskutik
 helduta dihoa.

**Ordiziako AHTren aurka-
 koek, "Egin"en 94-XII-5an.**

Aketegiko Dama

Euskal mitologian hain eza-
 guna den Mariri buruz hainbat
 istorio daude. Hauetako kon-
 takizun batean, eta hain zuzen
 ere "Aketegiko Dama" aipa-
 tzean, Mutiloako Iturriotz ba-
 serria agertzen da. Sarritan
 entzun ohi diegu Iturriotzko ai-
 ton- amonei bereziki, bertan
 dama bat jaio zela, baina inoiz
 ez genuen kontu hau gehiegi
 sakondu.

**Salome Olaetxeak, "D.V."
 Mutiloako kronikan.**

Hizkuntza politika

Abertzaleon iritzia (orain
 esaten dugun bezala: diskur-
 soa), jokamoldeak, erabakiak,
 euskararen normalizazioa alo-
 rrean oso aurreratuak dira, asko
 heldu gara; gu mogitu egin ga-
 ra, hau da, ibili eta heldu egin
 gara eta ez dut nik gauza bera
 somatzen abertzale ez diren al-
 derdiengan, zoritxarrez.

Mari Karmen Garmendiak
Segura Irratian, 94-XII-23.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Ordiziako alkatea kontraesanetan

GOIERRITARRAren 58.ean hala zioen Juanbi Erauskinek: "Beasain eta Ordizia 'bat' dira". Eta horretarako zerutik behatu beharra zegoela, harrapazak! Horixe da errealitatea, horixe egia. Baina, nire susmoak ditut ez ote dion norbaiti entzun, eta "bai gauza polita!", hurrengo hauteskundeetarako badiagu lelo "berria", interes zehatz baterako erabiltzeko ez ote duen. Esango didazue zuek, bestela, zer arraio egiten duen horrelako pentsamolde batek alderdia den kartzelan harrapaturik!? Pentsamolde hori *askea* da, harrapaezina.

Alderdia, definizioz, kartzela da, horrelaxe. Uste izatea, zu eta ni 'ezberdinak' (Beasain-Ordizia) bat gara. Bada ez Juanbi, 'bat' gara, hara nondik, Ordizia eta Beasain 'bat' diren hein berean. Mesedez, horrelakoak botatzen ditugunetan, irten daitetzela bihotzetik eta ez nahiatik. Ziur izan, hori sentitzen duenak ez duela inolako alderdiko kartzela probatu beharrik izango, e, Juanbi! Alde ederra! Eta ez zatiezina zati nahiean. Antzukeriagorik... Lurrikara handiagorik...

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

Euskara zine aretoetara

Kaixo: Aldizkari horretara zuzentzen gara "Euskara Zine Aretotara" proiektuaren berri emateko. EZA helburu argi batekin jaiotako proiektua da: euskararen normal-kuntzari laguntzea zine aretoetara sarrarazi eta euskarazko filmeak proiektatzea, batez ere ikusle haur eta gazteentzat. Gaur egun euskara sarturik dago Euskal Herriko kulturaren eta komunikabideetan, baina orain arte, oso salbuespen jakinetan izan ezik, ez da iritsi zine aretoetan aurkeztua izatera. Gure proiektuan, neurri bateraino besterik ez bada ere, hutsune hori betetzen ahalegindu nahi dugu.

EZAk esperientzia guztiz berria gauzatu nahi du E.H.-n: zine aretoetan, era erregular eta jarraituan, euskarara bikoizturiko filmeak proiektatzea, eskola-aroan dauden gazteen osagarri pedagogikotzat. Urtero, hasierako aldian, 4 filme, 2 animaziozkoak (1.tik 4.era bitarteko ikasleentzat) eta fikziozko 3 luzemetrai (5.etik 8.era bitartekoentzat). Filmeak aldeztu aurretik zirkuito komertzialetan estreinatutakoak izango dira eta haien eduki pedagogiko eta arrakasta komertzialaren arabera hautatuko ditugu. Ahalik eta ikastola eta ikastetxe, nola publiko hala pri-

batu, gehienetara iristen ahaleginduko gara. Filmeen proiektzioak eskola ordutegiaren barruan izango dira eta aukera eskeintzen diguten areto edo kultur gelak dituzten herri guztietara heltzen saiatuko gara. Aurrez zuen adeitasuna eskertuz,

Marian Galarraga (Word Baske export, Euskadi Kalea, 6-9.a, 48960 Galdakao-Bizkaia, 94-4565704 tfnoa.)

Preso-errefuxiatu goierritarrok:

Neguko solstizioko sua den Olentzerok, naturako indarrak berritzen dituen gure Olentzerok, erre eta kixkal ditzala hainbat burutan dauden ideia kapitalista, inperialista eta zapaltzaileak; izan ere mugak kendu eta kartzelak bota, arren, ideia zapaltzaileek irauten duten bitartean zuek hor jarraituko baituzue, eta agian niri ere tokatuko zait...

Ea ba neguko solstizio honetan zaborra handienak erre eta udako solstiziorako, San Joan surako, xabonak soilik uzten ditugun.


Musu handi bat eta laister arte!

Eguzki-lore (Lazkao)



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfnoa: 880543 BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

GOIERRITARRAN FAX BERRIA DAUKAGU:

88 29 17

Intereseko Telefonoak

ZALDIBIA

Udaletxea880358-
887450. Faxe: 885043
Kultur Etxea:888090
Kontsultorioa:880027
Eskolak:884251
Taxista:889157

ITSASONDO

Udaletxea:881170
Medikua:881359
Farmazia:887589
Eskolak:887704
Altzagako tfno. publikoa: ...880740
Urkiako lokutorioa: 806045
Erretore Etxea:881161

Errezeta



Juani Arrietak
emana
Maizpide Euskalte-
giko sukaldaria
Lazkao

INTXAUR-SALTSA

Osagaiak: Kilo bat intxaur, litro t'erdi- bi litro esne (intxaur motaren arabera), azukrea norberaren gustora eta kanela-zotza.

Kilo bat intxaur zuritu eta okela txiki-txiki egingo dugu, kafe-erota edo botila bat erabiliz. Litro

t'erdi-bi litro esne kanela-zotzez sutan jarri eta epeltzean intxaur xehetua botako diogu. Su motelean gozo-gozo egosten edukiko dugu ordubetez edo, egurrezko goilaraz noiz-behinka nahastuz. Azkenean azukrea botako diogu, gehiago edo gutxiago, norberak bere gustora. On egin!

Bota bertsoa



Igor Eguren
Gaia: 94ari errepasso
Doinua: "Betroiare-
nak"

Laurogeitahamalai nolako urtea munduan nagusitu da nahastea: Zapatistek jo zuten lehen atakea, Italian eskuinak jaso boterea, Sarajevon kea, Rwandan gosea, Irlandan pakea heldu da ordea, nahiz ta ez den kostatu oso merkea. (bir)

Eta etxean berriz kontatzeko pila: "Azpiegituretan" gabiltza ia, ikastolek jo dute irtenbide bila, arrazoi gabe preso Pepe Rei mutila, Ardanza abila, koinatu umila, Ertzantzak makila, eta beste mila... hurrengo hobea izan dadila. (bis)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53 ARAMA

BEGUÉ REDONDO JANARIDENDA

Berezitasuna janari eta fruitutan

Urdaneta 39 ORDIZIA
Nafarroa Hibilbidea 27 BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariartz, 4
Tfnoa: 88 86 84

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Lan egin nahi al duzu? Dei iezaidazu dirua eta erregaluak sartzen dituzuen orduen arabera dago zure poltsikotik pezetarik eman gabe. 180691 (Marijo).

Salerosketak

□ Opel Omega (Turbo diesel) saltzen da (SS-0879-Y). Telefonoa: 881722. Gaez deitu.

□ SS-AN matrikuladun ko-txea salgai. 886139-161108.

□ Estrenatzeko dagoen 'Fagor' sukalde mistoa saltzen da 30.000 pezetan. 889823.

□ Goi-mendiko zakua salgai, lumaduna, berri-berria, salneurria tratuan, hitzegiteko. Dei 889612ra, Mikel.

□ GOIERRITARRAren propaganda, ez garestiena, bai onena! Kontuak atera eta zuretzako egokiena aukera. Merke merke sartuko zara 4.000 txokotan (14.000 irakurle). Dei 889612ra (zure inprenta-lanak ere egingo ditugu, behin eta ondo).

Etxebizitzak

□ Beasaingo Nafarroa Etorbidea 33.enean, lokala alokatzen da. 889038.

□ Altamiran edo Ordizian alokatzeko dagoen pisu bat behar da. Amueblatu gabe. 160654.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Urtarrilak 3, 'Mamuak', hurrei zuzendutako ikuskizuna, antzerki, diaporama, bideo eta efekto bereziekin.

BERTSOAK

✓ Ordizia:



Urtarrilak 1, Egaña, Peñagarikano, Sorozabal, Murua, J. Sarasua, X. Zeberio eta S. Lizaso, Kiroldegian, arratsaldeko 6etan. Gai jartzailea: Nikolas Zeberio.

✓ Lazkao:

Urtarrilak 7, ikus Lazkao kronika.

MUSIKA

✓ Ordizia:

Abenduak 31, Ohiko Kattalin interpretatuko dute Beti Argi banda eta Rondalla Laguntasunak.

Egutegiak

Urtarrilak 1, Drindots taldearekin dantzaldia Beti-Alai Pilotalekuan, goizaldeko 1etatik aurrera.

✓ Segura:

Abenduak 29, Zegamako Orkatx Txiki abesbatza Zaharren Egoitzan, 5.30etan.

✓ Zegama:

Urtarrilak 6, Orkatx Txiki eta Orkatx abesbatzek 10. Eguberri jaialdian parte hartuko dute. Gabonetako kontakizunak abestiekin tartekatuko dira emanaldian zehar.

ZINEA

✓ Ordizia:

Ostirala 30, "Los peores años de nuestra vida", 10,15.

Igandea 1, "Los peores años de nuestra vida", 7,30-10,15.

Astelehena 2, "Los peores años de nuestra vida", 7,30.

IKASTAROAK

✓ Beasain:

Urtarrilaren 9an hasita, erlaxaketa eta estiramentu ikastaroak Sebastian Etxeberriarekin. Kla-

se egunak astelehen eta asteazkenetan, 18.30etatik 20.00etara, hiru hila-betez.

BESTELAKOAK

✓ Beasain:

Urtarrilak 4, 'Artzainak: azken nomadak' diapositiba bildumaren proiektzioa Gema Arrugaetaren eskutik, Arangoiti Agurren Egoitzan, 16.30etan.

✓ Ordizia:

Abenduaren 30era bitartean, 'Gabonetako ipuinak' Arrate Leundaren eskutik, Barrena Kultur Etxean, 11.00etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Abenduaren 30era arte, Aterpe Tabernako III. Pintura Lehiaketan aukeratutako lanen erakusketa, Aterpe Tabernan.

GOARDIAKO BOTIKAK:

Abenduak 30-31-Urtarrilak 1: Atorrasagasti; *2*: Azpilikueta; *3*: Jauregi; *4*: Larnaga; *5*: Cuesta; *6*: Arriola; *7-8*: Azpilikueta; *9*: Urbizu; *10*: Atorrasagasti; *11*: Azpilikueta; *12*: Jauregi.

KEMEN KIROLAK



Zamalakarregi, 1
Tfno. 88.51.68
ORMAIZTEGI

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

Goierriko berri



**Eskerrik asko urtean zehar
gurekin izan zareten guztioi:
irakurle, kolaboratzaile eta
iragarleei.**

**Datorren urtean elkarrekin
izango garelakoan,**

Urte berri on!

**MARI JOSE
MERTZERIA
Kinkila-denda**

☎ 887267

S. Inazio, 14 (Galeriak) BEASAIN

DE LA CUESTA

**Etixerako eta bestetarako
oihal biltegia**

Plaza Nagusia, 7
☎ 880432

6 posta kutxa
ORDIZIA



MUJIK



BEASAIN

☎ 88 74 00



Eguberrietako azoka berezia

Eguberrietako azoka aparta ospatu zen asteazkenean Ordizian. Ordurarteko izotzik handiena bota bazuen ere, giro bikaina izan zen. Giroa alaitzeko zantzarak, trikitilariak, txarangak, dultzaineroak... izan ziren nagusi. Lehiaketarik ere ez zen falta. Errezil sagarren lehiaketarik dagokionean, Hondarribiako Rafael Amunarrizek irabazi zuen; 2. saria Gabiriako Maria Etxezarretak eta 3. Ormaiztegiko Kaxilda Iurritak. Barieda-dearena, Idiazabalgo Kalbarioko Ramon Aseginolazak; eta fruitu lehorrena Errezilgo Joselino Irulegik.

Hortik aurrera, ez zen nobedade handiegirik izan. 250 buru arkume azaldu ziren. Ondorioz, 450-500 pezetara

jaitsi zen; untxiak 350ean; oilagorrak (12) 2.000 pezetan; erbia (1) 3.000an; fairsana (1) 2.000an; eta usoak (50) 1.000 pezetan.

Brokoliak, tomateak, lekak, granadak eta gaztainak desagertu egin ziren. Bertako errezil sagarrak 100-500 pzta. bitartean eta konpota egiteko txermenak 250ean. Kanpoko produktuetan, gehienak igo egin ziren. Laranja 90-150; bananak 250-300; mahatsa 395; lekak 500-550 eta patatak 64-99.

Arrainak lehengo astearekin alderatuz, jaitsi egin zirela esan behar da. Angulak 19.000-20.000 bitartean; mediana 2.620ean saldu zen eta zapoa 1.520an.

Ana Irastorza



**Haltzariak
Proiektuak
Erreformak
Opariak**

Goierrri 15
ORDIZIA

☎ 88 17 08



ORDIZIAKO ELKARTASUNEZKO

DENDA zabalik egongo da datorren urtarilaren 6a bitartean. Askapena erakundearen babesean antolatutako denda, Santa Maria kaleko 18an dago. Apaingarriak, larrua, oihalak, zeramika, egur lanak edo janariak aurki daitezke bertan. Ordutegiak hauek dira: goizeko 10etatik 13.00etara eta arratsalde 16.00etatik 19.00etara. Gogoratu, Beasainen urte osoan dagoela zabalik elkartasunezko denda.

GAZTEENTZAKO

ESKI ALPINOA Gipuzkoako Diputazioaren eskutik. Egun bat, asteburua eta astebeteko iharduerak dira, Astun/Candanchu eta Palen. Egun bateko iharduerak: astelehenetik ostiralera bitarteko edozein egunetan, apirilaren 21era bitartean. Asteburuetako iharduerak: Urtarrilaren 14/15, 21/22 eta 28/29ko asteburuak; otsailaren 4/5, 11/12, 18/19 eta 25/26an; martxoaren 4/5, 11/12, 18/19 eta 25/16an; eta apirilaren 1/2 eta 22/23an. Astebeteko iharduerak: otsailaren 5/10, 12/17 eta 19/24an; otsailaren 26tik

martxoaren 3rako astea; martxoaren 5/10, 12/17, 19/24 eta 26/31 asteak; eta apirilaren 17/22an. Egun bateko egonaldia, 2.500 pezeta kostatzen da; asteburukoa, 8.625-8.300 bitartean eta astebetekoa, 25.314-33.900 bitartean. Izena, bidaiaren irteera baino 10 egun lehenago eman beharko da. Irteera guztiak Donostiako Pio XXI. plazatik izango dira. Informazioa, Ordiziako Gazteen Informaziorako Bulegoan (Barrena Jauregian) izango duzu.

AMODIOZKO GUTUNEN LEHIAKETA

antolatu du 3. aldiz Bergarako Jardunek. 80ean edo lehenago jaiotako edonork har dezake parte. Lan guztiak euskaraz idatziak beharko dute izan. Lanen luzera ezingo izan da bi orrialde baino gehiagokoa. Sariak: lehenengoak 75.000 pezeta, 2. 40.000, eta bergarar onenarentzat 25.000


pezeta. Lanak urtarilaren 26a baino lehenago aurkeztu beharko dira Jardun Elkartearen (Masterreka, 13-behean).

GOIERRIKO ERRETRATU ZAHARRREN ESKE GOIERRITARRA

Goierriko edozein herri-tako erretratu zaharrak behar ditu GOIERRITARRAk, argitara emateko. Argazkia non eta noiz aterata dagoen, bertan agertzen direnak nortzuk diren... xehetasun guztiekin, ahal bada. Argazkiak hutsik egin gabe itzuliko dira, eta horretarako bidaltzailearen izen-abizenak, helbidea eta telefonoa argi eta garbi azaltzea eskertuko genuke. Mila esker! GOIERRITARAREN zuzenbidea: 124 p.k. Ordizia. Dorre-Etxean gaude, "Correos" eta Nekazal Ganbararen gainean. Tfnoa: 889612.

MUNDUATE

Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
Tfnoa: 88 12 72

ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

88 04 15 ORDIZIA
16 07 07 OLABERRIA

KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) 889252 BEASAIN



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Haizearena

Euskaldunok nekez bereizten ditugu haizea eta airea. Guretzat biak dira haize edota bata bezain inportantea da bestea. "Haizea hartuta dabil" esaten diogu umeari eta "haizea buruan, besterik ez" erasotzen diogu gazteari. Eta emakume-haizea, txoro-haizea... eta haize klase askoren izenak emango dizkizu hiztegiak (harraizea, aldaizea...), baina zahar-haizerik ez dago. Zaharrrak ez du haizerik tripan bestetan. Moraleja oso erraza da: haizea hobe da buruan tripan baino.

Baina haizearen tenpluan bizi gara denok, nortasuna haizez puztuta dugula. Horregatik izaten ditugu arboleak beraiek bezainbateko astinaldiak. Eta etsita egon, gure arima haizeak berekin eraman arte gutxian, zurrumbilork ez dela baretuko.

Haizearen tenpluan kulunka dabilen sehaskan ezagutzen du gizonak bere burua, berak batere ez dakiela. Haizeak iraulitako sehaskatik atera eta kolpeak hartuz ikasi genuen oinez, eta haizeak noraezan erabili ondoren, biriketari haizerik gabe geratzen garenean, lurraren haizetik biziko gara, haizeak airean eraman arte.

□ Rufino Iraola

Zer inuxentekeria egin dizue?



Argi
etxezaintzailea
zegamarra

Zegamako mutiko bihurriek nere hortz zorrortzak limatu zizkidaten. Orain ezin diot inori hozkarik egin. Zaunkari soil bihurtu naiz. Eta azken aldiko eguraldia ikusirik, zaunkari txarra nonbait.



Joxpi
zamari burugogorra
lazkaotarra

Ni intsumisioa nintzen eta Belloch-en lege berriarekin, epaileak 3 urtetarako asto bihurtu nau. Dena den asto intsumisioen plataforma sortzekotan gara, nagusien gehiegikerien aurrean.



Margarita
haragi emalea
gaintzarra

Nik kalitateko euskal okelaren labela edukitzeko ohorea dut. Abenduaren 28an kategoriko txuleta eta solomilo bihurtu ninduten. Ni gustorago nengoen zelaiari belarra janez, baina on egin!

A ze flaxa!



**EUSKAL
AMIGA
party**

Amagoia

Diseinu Grafikoa
eta
Publizitatea

PLA/ DOMINGO UNANUE Zº 2 TEL 88 10 06
20.240 ORDIZIA (GIPUZKOA)

DISEINU GRAFIKOA


Imagin korporatiboa / kartelak / txartelak
Posterrak / Gonbidaketenak / Anuntziak / Muestrariak
Folletoak / Katalogoak / Kalendarioak / Portadak
Pegafinak / Postalak / Jateetxeetako kartak...

MARRAZKIAK

Marrakiaz teknika desberdinetan
Marrakiz oso bereziak aerografoz eginak

ARGAZKI ERRETOKAJEA

Argazkiak beritzea eta efektu bereziak



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Eguberri eta urte berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05 BEASAIN



*Artesania
Opariak*

K. Nagusia, 28
T 16 02 48
ORDIZIA

Iruzurretik zentzugabekeriara

Beasaingo Ikastolako auzia geuk Ikastolan konpondu beharrekoa dela sinetsita gaude. Auzi hori ezin liteke Ikastolatik kanpora konpondu. Horregatik, gaia beti ere Kooperatibaren barruan tratatzearen zale izan gara eta gara. Halere, bada jenderik, Kooperatibaren barruan harik eta gutxien hitz egin (abenduren 3ko Sasi-batzarrea 12 ordu bilduta egon eta ordubete bakarrik utzi zen eztabaidatzen) eta egunero egunkarietan eta hedabideetan hainbat orrialde bete-zeko prest azaltzen dena. Beraz, auzia egunero plazaratzen ari zaizkigunez, behartuta aurkitu gara kanpora begira ere balorazioa egitera. Beraz, gauzak zuzen adierazteko eta geure balorazioa egiteko argitaratzen dugu gaurko hau.

Batzarraren ingurukoak

Uztailaren 28an Eusko Jaurkitzak otsailean indarrean jarritako publikotze-dekretua Auzitegiak indarrrik gabe uztean, Alkartasuna Lizetza Ikastola eta Kooperatiba izatera itzuli zen eta horrek jada lege-arloan ez du aldaketarik izango. Orduan, Kooperatiba gestionatzeari ekin ordez, Kooperatibako Batzorde Errektoreko 6 batzordekide publikozaleek, irakasleen greba onartu, bultzatu eta osoro babestu zuten, batzuek gidaritza ere parte hartuz. Ikastola abiarazteko ahaleginak egin ordez, ez abiatzeko bideak jarraitu zituzten. Zuzendaritzari adibidez, berek uko egin zioten eta ondoren jarri zena arbuia egin dute, 2 ikasgela natural 3tan banatzea onartu egin zuten (ekonomia laguntzeko ziur aski) eta uneoro Ikastolak funtziona ez zezan ahaleginak egin zituzten. Neurri handi batean, irailean Ikastolak 80 ikasle galdu izanaren erantzule dira (Esan baino ez, ikasle horietako gutxi batzuk joan zirela Ikastetxe publikoetara; gehiengo nagusia beste Ikastola batzutarra eta La Sallera joan ziren, nahiz eta haien gurasoetako gehienak, lehen eta orain Eskola Publikoaren alde bozkatu). Klaseak hasteko Udaletxeko mahaia eratu behar izan zen. Etxeko sua etxeko errautsez estali ordez, alderdi politiko eta kargudunei ozenki dei egin eta Ikastolaz kanpoko indarrek gaia tratatzea nahiago izan zuten. Halere, Ikastolaren onerako izango zelakoan, mahai horri baietza eman genion. Geroztik, hileroko kuota

kobratzeaz ez dute ezer jakin nahi izan eta 1994-95 ikasturte honetan oraindik ez da xoxik kobratu. Bestalde, bazkide ez diren gurasoei bazkide izateko aukera emateko ere, ez dute ezer egin nahi izan eta azkenean zerrenda hartu eta denak "guraso" eta "ez-guraso" moduan sailkatu gaituzte. Horrela jokatzuz eta Ikastolaren aldeko Kooperatibaren funtzionamenduan urrats berriak emateko bidean genbiltzala ikusita, berehala Sasi-batzarra prestatzeari ekin zioten proiektu hori burutu ez zedin.

Batzarra bera

Batzarra prestatzeko informazio-mota guztiak beren esku izan dituzte. Mahaiburutarako izendatuak ez dio bere garaian ezeri erantzun nahi izan. Horregatik Notario bidez egin zitzaizkion errekerimenduak eta haien guztien erantzunik ere oraindik ez da jaso. Irregularitasunak ugari eta nonahi izan dira. Hauteskunde-kanpainetako boto-bilketatik politikoen antzeko jardura garatu dute. Irakasle publikozale asko, gurasoz guraso eta bazkidez bazkide ibili da boto biltzen. Umeak tarteko direla, ikaraturako guraso asko dago eta hori gutxi biltzen, identifikatza eta botoa ematera joatean ere, hantxe topatu zituzten irakasleak aurrez aurre. Estrategiaren etikotasuna eta gardentasuna begibistan daude. Batzarreko lehen bi puntuak, Kooperatibako beharrezko organoetatik pasa gabe aurkeztuak izan ziren eta zegokien kexua jaso zuten gure aldetik. Guzti horren barruan ordea, 3. puntua zuten garrantzitsuentzat Batzorde Errektorearen jabe egiteko. Ahaleginu ziren noski Kooperatibaren defendatzaile ziren 6 ordezkariak kargugabetzen. Inolako salaketa, tarteko organoetako tratamendu, zigorrak, espediente eta gisakorik gabe, urte-hasieran frogatua zuten bidea (kontsignazko botoena) berriz erabiliz, 6 Ikastolazaleak kargugabetu eta berriak aukeratzean Barne-araudia gaitetik pasaz, itxuraz bederen lortu zuten beren helburua, baina benetan ez dute lortu. Lehen ere gauzak gaizki egiteagatik daude dauden lekura iritsita eta orain ere gauza bera errepikatu da. Beren borondatea nonbait, gauzak beti gaizki egitekoa da ezerk aurrera ongi egin ez dezan. Zerrendetako okerrak larrietatik hasi

eta alde zuzenetik inolako urratsik eta jakinerazpenik gabeko boto ponderatuetararte, irregularitasuna besterik ez da izan. Kooperatiba eta bere organoak zuzentasunez eta gizalegez erabiltzen ez diren bitartean inpuignazio-bidea baino ez da gelditzen eta horren zale ez garen arren, erabili beste erremediorik ez dugu. Sasi-batzar hartako erabakiak inpuignatuta daude. Sasi-batzarretik sortutako Sasi-batzordea kargugabetua gerta daiteke. Ikastolaren aldeko 590 bazkide eta gurasoen babesa jaso genuen eta horrekin une honetan %45 sendoa garela erakutsi genuen. Ikastolaren aldekoa den %45 hori ordezkariarik gabe dago Kooperatibako agintaritzan, hain zuzen ere, Ikastola bizirik mantentzearen aldekoa den %45a. Hemendik gutxira iruzurra azaleratzen denean ikusiko dugu bazkide eta gurasoen gehiengoak zer dioen.

Aurrera begira

Orain Kooperatiba desegin nahi dutenek Kooperatiba kudeatu beharko dute. **Otsa artzain** alegia. Horrekin halere ezin dute Ikastola publikotze-bidean urratsik eman, ez-ohizko eta delitu-bidezko bideak erabiliz ez bada behintzat (nahita eragindako porrota, etab.). Kooperatiba horrela desegiteak ordea, erantzukizun larriak ekar diezazkieke eta berek ere badakite jakin hori gerta ez dadin oso adi egongo garela. Guk, Sasi-batzordea gorabehera, Kooperatiba sendotze-bidean eta Udaletxeko mahaian proposatutako akordio eta ulermen-bidea defendatzen jarraituko dugu, nahiz eta abenduaren 3ko Sasi-batzar hori hain zuzen ere, akordio-asmo eta borondate guztien aurka egindako eragiketara izan. Ez da kasualitatea akordio-proposamena mahairatzearekin batera Sasi-batzar haustaile eta etentzaile hori egiteko deia aldarrikatu izana. Guk hori ozenki salatzen dugu denek jakin dezaten. Dena dela, ezinbestekoa da Ikastolari gaur egun duen estatus eta egoera errealetik abiatuta irtenbidea aurkitzea eta horretarako Ikastolarekin, Kooperatibarekin eta horiek defendatzen ditugunokin kontaktu beharko dute.

"Geurea Ikastola"

Beasaingo Ikastolaren Aldeko Taldea

Gabiriako Aitagoitiko Andres artzaina

Legazpi eta Gabiria artean dagoen "Aitagoiti" baserrian jaio zen Andres artzaina eta haurtzaroan gaixotasun batek hanka bateko indarrak lapurtu bazizkion ere, geroztik hor dabil, astoa bidailagun duenari, eguteratik laiotzera eta laiotzetik goi-lautadako larreetan zehar, beharbada, iraganeko artzainen bakardadearen bila eta ilunabarra abailtzen denean uzkur, urteen joanak ekar diezazkiokeen eragozpenez kezkatutik.

Galdera.- Noiz hasi zinen artzantzan?

Erantzuna.- 41 ean jaio nintzenetik ari nauk eginkizun horretan, nere aldame-nekoak hori esaten dik behintzat, txikitant negarrez hasten nintzenean artaldeko zegoen lekura eramanez eta ardiak ikustean berehala isiltzen nintzela.

G.- Eskolako bidea noizbait urratuko zenuen?

E.- Bai, eskolan ere ibilia nauk. 14 urte ingurura arte ibili ninduan Legazpiko eskolan D. Bautista Armendariz maisuarekin, napar-euskalduna zuan baina dena gaztelaniaz egiten genian.

G.- Eskola uztean Urbi aldera joan al zinen artzain?

E.- Ez, lehenengo etxe ondoan ibili ninduan, hemen Aizeleku aldean eta gero 28 urterekin joan ninduan lehenengo aldiz Urbiara, Idiazabalen enpadronatuta. Hango bati erosi genioan txabola eta oraindik ere herri horretan nagok enpadronatuta. Guk, bestela, badakik, Gabiria ez baita partzonerikoa.

G.- Txabolak berritzen ere hasi omen dira Urbi alde horretan?

E.- Nerea ez, ez diat eskatu eta gainera ez ditek berritzen, ondoan berri-berria egiten ditek, baina ez duk dena debalde, ehuneko 15 inguru heuk ordaindu behar duk. Datorren urterako hiruk edo eskatu omen ditek.



Hamaiketako egiten herriko jatetxe batean.

G.- Egia al da Urbian saltzen diren gazta guztiak ez direla bertakoak?

E.- Ez hori ez duk egia, han denak Urbikoak dituk, ardi asko zegok orain eta bertan egiten diren gazta guztiak saltzen bazegok nahiko lan kanpotik eraman gabe.

G.- Ez dakit zergatik baina jendeak dioenez zu omen zara Urbitik azkena jaisten den artzaina, aurtan noiz jaitsi zara?

E.- Abenduaren 3an jaitsi ninduan, baina ez neuk hala erabakita, ardiek behe aldera, Harri Urdin aldera, ihes egin zidatelako. Beste 4 edo 5 egun igaro nahi nitian han, baina ardiek hanka egin eta behera etorri behar.


G.- Inoiz jaitsi al zara hain berandu?

E.- Bai, orain dela 3 urte abenduaren 9an jaitsi ninduan. Baina orduan azaroaren 20an edo elurte latza bota zian eta ardiek Araba aldera jo ziaten, neu etxera etorri ninduan nola edo hala, eta gero berriro ardi bila, elurra laster urtu baitzian orduan. Elurte hori zela eta nahiko arazo izan nitian arabarrekin nere ardiek kalteak egin zizkietela eta.

G.- Horrelako udazkenik inoiz eza-gutu al duzu?

E.- Ez, nik ez diat inoiz ezagutu horrelakorik. Beharbada, lehen aipatu dudan urte hura baina, aurtengoa paregabea izan duk, elurrik batere ez, eta izozte haundirik ere ez.

G.- Zer-nolako urtea datorkizu?



Andres artzaina, ohi bezala, asto gainean.

E.- Iaz oso ondo ibili ninduan, arkume gehienak San Jose aldera izan bainituen eta prezio ederrean saldu, aurtan lehenago izango zituagu eta ez diat uste diru gehiegirik jasoko dugunik, larreak ordaintzeko lain izanez gero, zerbait duk.

G.- Zenbat ardi dituzu?

E.- Iaz baino gehiago bai, baina badakik artzainek ez ditek inoiz zenbat ardi dituzten esaten. Orain artalde polita diat, iaz arkume asko aurrerako utzi bainituen eta horrela ardiak jezten lan gutxiago izan nian.

G.- Ba al du etorkizunik lanbide honetarako?

E.- Batzuentzat bai, bestentzat ez hainbeste, oraingoz ardiko ematen diguten dirulaguntzari esker nolabait moldatzen gaituk, horregatik ez balitz hemen inork ez likek ardirik edukiko. Arkumeak badakik urtean zehar zer prezio egiten duen, esnea berdintsu eta artilea iaz 40 pezeta kiloko ordaindu zigutean.

G.- Inoiz pentsatu al duzu artalde kentzea?

E.- Hori uste gabe etorriko duk, baina oraindik ez. Gauza naizen arte eutsi beharko zioat, baina ari nauk bajatzen, bai, nabarmen antzematen zioat urtetik urtera indarrak ahitzen ari zaizkidala. Gure Jainkoari gauza bat eskatzen zioat, neure kabuz gauzak egiteko gai ez naitzen eraman nazala hemendik lehen bait lehen.

 Gabino Murua

Ba al dakizu...?



DIONISIO AMUNDARAIN EK BARAU gaupasa egin zuen Gabon gauean, Beasaingo Alkartasuna Lizeoko arazoaz kezkatutik. "Nire ustez, behetik eta ezker-eskubi jendeak parte hartu behar du bere historian. Gero eta gutxiago ikusten da gaur egun herriaren partehartzea. Galdu egin da hori eta horietako ekimen bat, Ikastolarena da. Nik ez dakit noren errua den, beharbada guztiona, baina badago agente berezi bat: goi mailako agintaritzak. Gizartean halakoxe uste bat sortuarazi du, dena goitik behera egin behar dena. Jendeak hori irentsi du eta horrekin bizi da". Publiko-pribatu auzi horren inguruan zera esan zigun euskaltzale ezagunak: "Ikastola betidanik izan da beste eskola publikoak baino publikoagoa, Ikastola herriaren partehartzeaz egin izan baita. Beraz, irtenbidea honela ikusten dut: publikoa nahi dutenak joan daitezela beste eskola publikoetara, eta Ikastola nahi dutenei utz diezatela betiko Ikastolan. Horixe da nire ustez irtenbiderik gizabidetsuena".



ETSEGARATEKO ERREPIDEA BIKOIZTUko omen da... datorren mendean. Oraingoaren parean etorri eta Gipuzkoara jeisteko bidea izango da, aidanez. 99rako egin beharrekoa bada ere, guzti hau proiektutan dago oraindik. 14.000 milioiko kostua izango luke, hau da, 1.000 milioi kilometroko. Gure N-1ak eta Maltzagaur-Urbinak, biak bide dute lehentasun bera, teoriarik. 3 zatitan banatu da obra: Idiazabalgo bidegurutzea (km.1), lehen 2 km. aldapatsuak eta portua bera. Lehen faseko lanak hastear daude, 650 milioiko aurrekontua, ibaiaren ubide berria eta zenbait zubi aurrikusten dira. Etxegarateko (lehen Etxegarate) obran lanak atzeratzea ziurtzat jotzen da ordea.

GOIEKI ETA LAZKAOKO MAIZPIDE Euskaltegiak indarrak bildu eta lan-munduan euskararen alde lan egitea erabaki dute. Goierriko garapen agentzia martxan jartzekotan den egitasmo estrategikoaren barruan etorriko litzateke hori eta aldaketa soziala biltzen da, biltzea eta modernizatzea bai, baina identitate zeinuen eutsiz. Bestalde, euskararen inguruan da biltzen erakunde eta taldeekin ere hasi da bilerak egiten Goieki, gure hizkuntzaren normalizazioa gaur edo bihar lor dadin.

GOIERRIKO BERRI zenbait, motxan: Goierriko "Once" erakundeak 40 milioi pezeta banatu ditu saritan Ordizia, Beasain eta Lazkaon. Gaiez aldatuz, Zegamaldeko enpresaren baten isurketa bategi Oria ibaiko arrainen heriotza ekarri zuen hile haseran. Bukatzeko, Jesus Mari Deba ormaiztegiak harakinak Tolosako Odolki Lehiaketa irabazi du, bere herrikoa irabazi berri duen bezalaxe. Maila bada Ormaiztegin!

ZALDIBIKO BERRI pare bat: Zaldibiako udalak lorategi botaniko bat eraiki nahi du. Bere aurrekontua 20 milioietakoa izango litzateke eta Eusko Jaurlaritzak dagoeneko 2 eskeini dizkio ingurugiro teknikari bat hartzeko; herri bereko Zaldibarren baserriko Irastorza anai-arrebak etxea galdu dute berri-

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Linterneritza

Gasa

Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65
908 671542

Igartza Oleta 10
BEASAIN

ki sute bat dela medio; beraiek ere justu-justu atera ziren bizirik.

LEGORRETAKE BE-
RRIEKIN datorkigu Josune Amondarain kronista: Herri Eskolako 8. mailako ikasleek ikasketa bukaerako bidaia egin ahal izateko atera zuten errifaren zenbakia 9595 izan da. Bestalde, urte berriaren etorrera ospatzearen, urteroko dantzaldia izango da Bilkoin elkartearen gauerdetik aurrera.



OLABERRIKO ELIZAREN OBRAK hasiak dira: teilatua berritzeko kostua 31 milioikoa izango da eta barruen konpontzearena 17koa; Foru Aldundiak 21 milioi eskeiniko ditu eta laguntzak eman ditzakete olaberritarrek ere.

J. M. BARANDIARANEN 3. URTEMUGA gogoratzeko zenbait ekintza burutu dira giro ederrean Ataunen hile honetan: irratizaleen 24 orduko saioa eta irrati zaharren erakusketa; bertsolaritzari buruzko mahaingurua, giro eta jendetzaz blai, urteetan zehar bertsolaritzak izan duen eboluzioaz mintzatu ziren Mikel Mendizabal, Koldo Tapia eta Joxepa Madariaga; Nafarroarekin herri mugantea den horretan hain ohizkoa izandako kontrabandoari buruzko hitzaldia Azentzio Aierbek eman zuen eta, izugarritzko kontrabandoa izan zenez, ez zen txiste eta pasadizoren faltarik izan; mingotsak ere bai, goardia zibilekoak, e.a. Antolatzaileak oso gustora gelditu dira, animaturik aurrerantzean ere lan egiteko.

leen 24 orduko saioa eta irrati zaharren erakusketa; bertsolaritzari buruzko mahaingurua, giro eta jendetzaz blai, urteetan zehar bertsolaritzak izan duen eboluzioaz mintzatu ziren Mikel Mendizabal, Koldo Tapia eta Joxepa Madariaga; Nafarroarekin herri mugantea den horretan hain ohizkoa izandako kontrabandoari buruzko hitzaldia Azentzio Aierbek eman zuen eta, izugarritzko kontrabandoa izan zenez, ez zen txiste eta pasadizoren faltarik izan; mingotsak ere bai, goardia zibilekoak, e.a. Antolatzaileak oso gustora gelditu dira, animaturik aurrerantzean ere lan egiteko.

XABIER MENDIGUREN BEASAINDA- RRAK

bi sari irabazi berri ditu: Euskaltzaindia-BBK-ak antolatutako literatur Txomin Agirre lehia-keta 'Bekatuaren itzala' lanarekin eta

Toribio Alzaga antzerki saria 'Hilerri itxia' lanarekin. 'Bekatuaren itzala' lanak apaiz baten istorioa kontatzen du: serora bat dauka etxe-ko lanak egiteko eta gutxinaka sexualitatearen grina sentitzen du eta horrekiko borroka darama. 'Hilerri itxia' antzezlanean berri, dena itxita dagoen kanposantu batean gertatzen da, kanposantua bota behar dute han etxe bat egiteko eta bertako hezurak ateratzen ari diren bi langileek artekoak kontatzen ditu. Be-

saindarrak ondo ezagutzen du antzerki sari hau irabaztea zer den, 86 eta 88 urteetako antzerki sariak berak jaso baitzituen.



MARI KARMEN GARMENDIA ormaiztegiarra Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari izatetik Kultur kontseilari izatera pasatuko ote den fundametzuko hotsak dabilta.


“SENDOK”K “IRRIZ ETA MALKOZ” liburua eta konpaktoa eman du argitara “Lazkao Txiki”ren bertso eta gertaerak oinarri dituela. Joakin Berasategi (Sendokoa) eta Mikel Mendizabal goierritarrek aurkeztu zuten honakoa; behin baino gehiagotan saiatu ziren Lazkao Txiki bere oroimen liburua idatz zezan. “Ez zuen ezetzik esan, baina ekiten ez...”. Aita Zavalaren ustez, konformagaitza izanik, asko eskatzen zion bere buruari; bestetik langintza horretarako pakea behar da eta Joxe Miel, berri, batetik bestera ibili behar izaten zuen, bertsotan ez ezik, baita pentsu-saltzen ere. Azkenean orde hildako lagunarekiko zorra kitatzea lortu dute eta obra hor dago.

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfona: 88 21 49 BEASAIN



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordi-
ziako Elkano kalean
Bekokale 17-1.
ITSASONDO

16 02 22

Enirio-Aralarko Mankomunitatea

Enirio-Aralarko Mankomunitatea 15 udalerri osatzen dute (Abaltzisketa, Altzaga, Amezketak, Arama, Ataun, Baliarrain, Beasain, Gaintza, Ikaztegieta, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Ordizia, Orendain eta Zaldibia) eta berak administratzen eta gestionatzen ditu Aralar Mendizerran dituen bere 3.400 hektareen erabilerak eta aprobetxamenduak.

Elkar-lanaren emaitza

Batzorde Errektoreko Lehendakaria Juanbi Erauskin Ordiziako Alkatea da. Batzordea arduratzen da Enirio-Aralarrekin erlazioa duten alorrak gestio-natzeaz: dela ganadutza, azpiegi-turetako inbertsioak edo interese-ko elementuak kontserbatzea. Irizpide bezala, beti ere, errekur-tso naturalen aprobetxamendua gero ere seguru izan dezagula bi-latzen da, hurrengo belaunaldiek gozatu ahal dezatela eta arrazio-nalki erabil ahal dezatela.

Urtero ekintza berriak aurri-kusten dira, aurretik jardunean daudenak ahaztu gabe. Gestio lan integral hau egiteko, Mankomu-nitateak bere diru-iturriak ditu: udalerri osatzaileak (urteroko ia 3 milioi pezeta) eta artzaiek eta ga-naduzaleek larre-eskubidea go-

zatzegatik ordaindutako kuota (2 milioi inguru urteko). Gipuzkoako Di-putazioarekin Hitzarmen bat sinaturik edukitzen jarraitzen da eta honi esker finantzatzen da administrazio, kudea-keta eta garapenak sortzen dituen %80a, baita inbertsio gastuak, hala no-la, ur-depositu eta karreoak, txabolen eraikitze eta konponketak edota ista-lakuntza fotoboltaikoak (EVE, Goi-men eta Tolomendirekin batera erabil-tzen direnak), 94ko aurrekontuetan 60 milioi inguru.

Bere lursailen erabilera nagusia, aintzinatik datorren ganadu-aprobe-txamendua da; 13.000 ardi inguru go-

bernatzen dituzten artzainek darabil-zkite bertako 50 txabolak; bestelako ganadurik ere bada (zaldi eta behiak): 700 bat buru. Honakoa da banaketa he-rriz herri: (*Ikusi koadroa*)

Enirio-Aralarko larreetarako sarbi-derako baimena Mankomunitateak ematen du, arautegi bat baitago (Larre Erabilerako Urteroko Plana) eta honek erregulatu behar baititu aprobetxa-mendu epe eta bazkatu dezaketen bu-ruak. Ardi bakoitzeko 100 pezetako kuota dago eta ganadu handiagoarena 1.000 pezetakoa.

Hobekuntza lan ugari

Azken urteotan Enirio-Ara-larko larre eta azpiegituren hobe-kuntza lanak burutzen ari dira. Aurtengoan lan garrantzitsuak, gainera. 30.000 litrotako deposi-tu bat eraiki da Doniturrieta ingu-ruan, Enirio inguruko txabolek ur korrientea ziur eduki dezaten. Beaskin inguruan 2.000 litrotako aska berri bat, udan hain beha-rrizkoa duten ur hornidura eduki dezan ganaduak. Deposituok, eta aurrez egindakoek, larreen husti-rapen hobia eskeintzen dute, eta jakina, artzaiei bizitza-kondi-zioena (gehienek dute kanileko ura). Datorren urterako, dena

Udalerria	Ardiak	Behorrak	Behiak	Zaldiak
Abaltzisketa	954	9	13	1
Alegia	97	2	0	0
Amezketak	4.129	217	36	9
Ataun	3.301	69	86	2
Beasain	320	9	0	0
Gaintza	280	1	0	0
Ikaztegieta	0	9	0	1
Itsasondo	345	12	0	0
Lazkao	215	60	45	1
Ordizia	210	33	3	2
Orendain	320	30	10	1
Zaldibia	2.753	143	13	9

Muguet

Bulego, kafetegi eta hilda-koentzako zentroak
Emaztegaienezako loreak
Geltokiko Kioskoa
☎ 88 98 83
ORDIZIA



Zure edertasuna
zaintzen dugu!

Solariuma
Depilazioa
Garbiketak
Azkazel postizoak
Makilaia
Manikurak

Aloska

EDERGINTZA eta USAINDEGIA

Domingo Unanue plaza, 2
Tfona: 88 24 10 ORDIZIA

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI



ARANDIA Garajea

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 OLABERRIA

den, Enirio-Aralar osoan ura banatze-ko aska berriren bat egitea pentsaturik dago.

Txabolak konpondu eta eraikitzea-ekin jarraitzen da, aurtengoan bi berrietako lanak amaitu dira: Txutxuta eta Doniturrieta Garakoa eta ia bukatu-rik dago Urruztikoa.

Mankomunitatearen di-ru-iturriak, Udalerriak, artzai-ganaduzaleak eta Diputazioa dira

92an jarri ziren energia fotoboltai-kozko lehen bi instalakuntzak (Zotaleta eta Doniturrieta Azpikoa); aurtengoan hiru egin dira, Elordi, Arritzaga eta Latosako txaboletan. Eguzki panel ize-neko plantxa batzuen bidez, eguzkia-ren indarra hartzen da eta argindar bihurtu, bateria berezi batzuetan bil-duz; txabolan zenbait argi eta zenbait elektrogailu eduki liteke horrela. Mankomunitateak txabola guztietan sistema hau ezarri nahi du, ez baita az-piegiturarik eraiki behar eta ingurunea-ri ez baitzaio kalterik egiten inola ere, garbiak dira, e.a.

“Fosa septikoak” direlakoak ere jar-zen hasi dira ur kutsadura galazteko; aurtun 5 txaboletan jartzen dira, Doni-turrieta Azpikoa, Doniturrieta Gara-koa, Oidui eta Intsentxaon (2).



Natur ondarea gero ere seguru izan dezagula bilatzen da.

Mantso baina gelditu gabe dihoazten lanak, oso inportanteak gainera, arbo-lak aldatzeari dagozkionak ditugu, ur-tero egiten direnak. Aurtengoan 30.000 pago landatu dira bi zonaldetan, bat Enirion eta bestea Pardarrin, ajolaga-beren batek erretako mendilepo ba-tean; landaketa honek 10 hektareako terrenoa hartzen du.

Beste zenbait lan ere egin dira, Eus-ko Jaurilaritzako Lan Sustapen progra-maren barruan 9 langile hartu izanari esker; lan bikaina egin dute, aipatze-koak dira Arritzaga eta Txindoki ingu-ruetako kamino konponketa ugari, ur-jazartzeak eta Lareon haritzak alda-tzea, besteak beste.

Txabolen arautegia laister

Datorren urteari dagokionez, eta nobedade bezala, Txabolen Arautegi berri bat martxan jarriko dela esan behar; horren bidez, beraien erabilera, larreen disposizioa, jasan beharko du-ten karga, e.a. arautuko dira. Arautegi horrek itxaropenak sortu ditu: ea ar-tzaien bizitza-baldintzak eta mendia hobetzeko balio duen oro har eta ea oraindik sortzen diren zenbait arazo ebitatzeko baliagarria den.

 Antonio Bea

(Mankomunitatearen enkargatua den Ekos-eko zuzendaria)

“Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak”



Kale nagusia, 35 Santa Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 16 00 44
BEASAIN ORDIZIA

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83

TXINAN ERROTUKO DA LAISTER ORMAIZTEGIKO KOOPERATIBA Saratxaga: "Inoren laguntzarik gabe nazioarteratu da Irizar"

Ormaiztegiko "Irizar"-ek 105 urte daramatza karrozeriak egiten. Duela 37 urte bihurtu zen kooperatiba eta geroztik Arrasateko kooperatiben Taldean (MCC) dago. Azkenaldian "haize onak" dabiltzela bertatik eta Koldo Saratxaga gerentearekin egon gara berri onak jakin nahian.

Makal, piztu, irauli

Saratxagak 47 urte ditu, Galda-kaokoa da, 11 urte daramatza kooperatiben munduan, horietatik 3 eta piku Ormaiztegin. Bere ustez, noranahi joanda ere, 105 urteko betetaria gradu bat da. Orain denbora asko ez dela, ordea, makal ibili zen kooperatiba. "Makal-makal. Gorabehera handiak izan ditu gureak, momentu onak baino txarragoak gehiago izan ditu, baina 91an egoera kritikoa izatera iritsi zen, ia istekoa, hemen denok dakigu. Halere, egoera guztiz irauli da eta hori ez da kasualitatez egiten, idea eta helburu batzuekin baizik, dugun aktiborik handienarekin: daukagun giza-taldea. Aurrean jartzen zaien edozein ideari aurre egiteko ahalmena dute langileek", dio. Erdi-itzalirik zeuden indarrak berpiztu eta egiten-jakite hori martxan jarri dute berriro, beraz. "Inoren laguntzarik gabe nazioarteratu gara, %15a esportatzenetik %70a esportatzera pasa gara".

Europa nahiago Espainia baino

Esportazioen kopurua hainbeste igotzeak zerbait esan nahi du: "Espainiako konpetentzia ugariarekin (14 karrozategi daude) edo salneurriekin lehian sartu ordez, merkatuei aurre egiten diegu (Europar dozentendirekin lehiatzen gara). Merkatua atomizaturik dago eta eskaerak urritu egin dira. Ireki eta esportazio politika agresiboa



"Hemengoa ez dugu arriskatuko kanpoko inbertsioengatik"

hartu ez bagenu itxi egin beharko genukeen. Azken urteotan urtero zein herrialdeetara joan nahi genuen markatu dugu helburutzat, erakundeetan antolatuta saltzen dugu atzerrian geroztik". Estatuan hainbeste ez jarraitzea erabaki ontzat dauka Koldok, izan ere 92ko xahuketek (Olinpiadak, Expoa,...) ekarri zuten 93-94ko krisia. Alabaina, Irizarrentzat urte hoberenak izan dira azken biok, estrategia zuzen bati esker. Aurten 4.200 milioi pezeta esportatzea espero du eta Espainian, berriz, 3.000 milioiko fakturazioa egitea, lider izaten jarraituz. Sektoreko eta Europako enpresarik esitosoena izan da goierritarra.

Jatorri izena munduan zehar

Irizar zabaltzeko prozesuak Txinara eta guzti eraman du. Orain artekoa gutxi balitz, edozein ormaiztegiar eta goierritar harrotzeko moduko berria: dakizuen bezala, Asturiasko Alsarekin eta Txinako enpresa batekin elkartu, "Tianjin Irizar Coach Ltd" sortu eta urtean mila autobusen karrozeriak egingo dituzte 400 langilek Tianjin hirian kokatuko den lantegian. Hiri horrek 12 milioi biztanle dauzka eta Txinako kostaldean dago, portu komertzial garrantzitsua daukalarik. Hemengo 345 kooperatibistek ez daukate

kuidadurik, ordea. "Internazionalizatzeke estrategia da hori: esportatu eta kanpoan salmenta-puntuak jartzeaz gain, 'igotzen' ari diren beste herrialdeetara iristea da kontua: Asian eta Afrikan gure aldean 'atzeraturik' daude, eta gure lujozko busak ezin ditzakete eskuratu. Kontua da errentabilitatea ateratzea egiten dakigun zerbaiti, milaka egin eta gero utzitakoari, kajoian gordeta geneuzkan kotxeen planu eta tresneria garatuei, e.a.-i". Orain egiten dituzten 6 izarretako "Century"ak ezingo lituzkete han saldu, ez eta hemen garai bateko "Everest" zaharkituak. Enpresa hau aitzindaria izango da

Txinan europearren artean eta datorren udan egiten diren busak hango onenak izango dira, dudarik gabe.

Etorkizun ona helburu

Espektatibak izugarri onak dira, "bai bertako barne kontsumoagatik eta baita kultura berdintsuko inguruko herrialdeen beharrengatik". Bestela eginezinezkoa litzatekeena burutu eta egiten dakitenari zukua ateratzeaz gain, ekonomikoki Ormaiztegiko negozioaren etorkizuna segurtatu nahi da guzti honekin. Oinarritzakoa izan da beti: "Lehentasuna duen hemengo negozioa ez dugu arriskatuko kanpoan inbertsioak eginez". 94an 450 bus egin dituzte, egunean 2; urtariletik aurrera 2 t'erdi egiteko asmoak dituzte. Beren indar guztiak merkatu asko eta produktu gutxi (baina oso puntakoak eta garatuak) edukitzen ematen dituzte. Produktu izarra da beraiena, eskaera onekoa. Negozioaren klabeak, berriz, kalitatea, kostea, harrera eta arintasuna bezeroekiko eta produktua hobetzen saiatzea dira. Zabalkundeari baietz esaten dio Irizarko gerenteak, baina bezeroen eskaeren arabera, ez zabalkunde zoroari.

 Jon Arano

Zirika irratiak 5 urte bete ditu

Abendua amaitzearekin batera herriko irratiak 5 urte beteko ditu. Sortu zen garai hartatik hona ez du aldaketa handiegirik jasan gure irratiak eta lankideak ezik beste denak bere hortan jarraitzen duela esan daiteke, nahiz eta orain dela gutxi konpaktoentzako aparailu bikain bat eskuratu den. 89ko abendu hartan, irrati mikrofono, disko, aurikular eta ingurukoak dantzan hasi ziren, argazkian ikus ditzazkegun lagun horiei esker. Talde honez gain, aukera aprobetxatu zutenak Herriko Eskolako haurrak izan ziren eta dira, eta beraien asteazkeneroko saio koxkorrak sortuz jorratzen baitute gaur egun ere.

Esan bezala, lankideak izan dira berritzen joan diren bakarrak eta asko izan ez badira ere sortatxo hau aipagarria da: Lierni eta Irantzu, Xabi Imaz, Amaia, Estitxu, Oier Urteaga, aurtan etortzeari utzi dion Juanito... Bai lehen eta baita orain ere, larunbatak (13.00etatik-15.30etara) jarraitzen du zorioneko eguna izaten, jendeak irrati



Maitane, Oier, Tomas, Xabi, Eba eta Edurne.

pizten duen asteko unerik aproposena denaren ustean. Saioa laburra da, baina 9 lankideren ideiak eta asmoak ongi isladatzen dituena. Hamaika elkarrizketa eta txutxumutxu argitzen saiatu ohi gara. Herriko nola inguruko berriak entzuleengana iristea da gure helburua eta batipat irratiak bestalde sukaldeko epelean dagoenak ongi pasatzeko esfortzutzua egin nahi izaten dugu. Zirikalarri beterranoenak Xabi, Eba eta Maitane ditugu, Aitor geroxeagokoa litzateke, ni neroni izango nauzue ondoren taldeari lotu zitzaiona, gero Ai-

mar, ondoren Gurutze eta azkenik aurtengo bi fitxajeak: Unai eta Iñaki.

Lan asko, kritika gehiago eta dirurik ez. Horixe da errealitatea. Gainera entzulegoa ez da guk amesten dugun kopuruetara iristen. Halere, "Emakunde" k antolatzen dituen lehiaketetan 3 sari eskuratu ditugu. Agian, eta geuk esatea ongi ez badago ere, beste inora iritsi ez garelako izango da. Dena den, egia da irra-

ti "pirata" bat izateko, hamaika harrituta geratu izan direla. Gure nahia, jendeak irratsaioetan gehiago parte hartzea litzateke eta jakin, entzule bazaitugu behintzat, kritikak jasotzeko irrikitzen gaudela. Zuk ere saioaren batean parte hartu nahiko bazenu, atak parez pare irekiak dituzu eta 10. lankide bat ere hartzeko prest gaudu. Utzi lotsa etxean eta zatoz! Guk egiten dugun adina egitea ez baita batere zaila.

Aloña Galarraga

URDOLA
bidaiak

Kale Nagusia, 36 161546 BEASAIN

Aste bukaera
Astun - Candanchu
9.700

Joan etorriko autobusa
2 eguneko "forfait" a
2 gau apartamentuan
Barne

gaur
express
mezulariak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak



GABIONA

Errodamentuak O. E.

F.A.G. eta G.P.Z.-ren banatzailea

Tel: 88 45 00
Fax: 88 99 06

Goierrri, z/g
ORDIZIA

Kanposantua eta Goiko-plaza erabat berriturik

Zeinek ez du noizbait kanposantu zaharrean zirrara berezi bat sentitu, edo zein umek ez dio lagunari esan halakoa entzun duela edo halakoa ikusi duela? Zorionez edo zoritxarrez, bukatu dira kanposantu zaharreko kontuak; izan ere, azken hila bete hauetan kanposantu zaharra erabat berritu da, orain amaitutako lanaren itxura osoa duelarik.

Batetik, lehen bi hilerriak (zaharra eta berria) banatzen zituen pareta bota eta bakarra eraiki da. Dena dela, aldaketa nagusia lurperatutako gorputzak atera ondoren, nitxoak egitea izan da, guztira 85 dira. 10 urte baino gehiagoz hilda zeuden herritarren hezurak gordetzeko hezurtegiak egin dira aldi berean. Nitxoekin, sistema errazago eta garbiagoa lortzeaz gain, herritarrentzat merkeagoa da, izan ere, lehen hilarria edo lapida hildakoa-ren familiak ordaintzen bazuen, orain Udalak berak ordainduko du. Hilarri guztiak berdinak dira, herritarren artean inolako bereizketarik egon ez dadin.



"Lurrak eskeini zigun lehenengo arnasa, lurrak emango digu betiko babesa", dio hilerrian jarritako plakak.

Zaharrean aldaketa guzti hauek egin diren arren, berria ia lehen bezala mantentzen da, lehengo sistema jarraituz, lurperatzeko zenbait leku, gutxi badira ere, gelditzen dira. Kanposantu sarreran kapila berri bat ere egin da eta obra hauek aprobe-txatuz eliz aurreko frontoia eta plaza ere txukundu dira, zoru berria emanez; farolez bazterrak argitu eta

zuhaitz bat edo beste kenduz eliz atzekaldeko arboladiak ez dirudi lehengo bera. Obra hauen aurrekontua 37 milioikoa izan da. Beraz, imajina dezakezue zein izango den aurtengo Gabonetan Udalak Olen-terori egingo dion eskaria..

Edurne Ayuso

ORMAIZTEGI

Asmoz eta egitez, urte berri on

Ariketa kuriosoa litzateke ikustea, urte haseran desio eta eskatu diren gauza guztietatik, zein bihurtzen diren egia eta zeintzu gelditzen diren egutegian ahazturik, edo hurrengo urterarte baztertuak, bete gabe.

Hauetako bat, eta batez ere emakumei entzuten dieguna, Gabon garaian gerri eta ipurtaldean irabazitako kilotxo hoiek ahal moduan botatzea da. *"Urtariletik aurrera erregimena..."*, zenbat aldiz ez ote dugu entzun?! Bada, eguerdiko berduratxoak nahikoa ez direla eta aerobik kurtsoa antolatzekoa da, oraindik ziurra ez izan arren. Sarritan planteatzen den beste asmoetako bat, oraindik ez da-

kitenen artean, euskara ikastearena da. *"Aurten bai"* diotenentzako, Guraso Elkartearen ekimenez eta Udalaren laguntzarekin, gure hizkuntza ikasteko ikastaroa izango da otsaila aldera, oraindik airean badago hau ere. Bi kurtso hauen gaineko informazioari nahi izango bazenute, jo Bittor Etxezarretarengana, Udal Liburutegira. Jakina jendea apuntatu ezkerro ikastaroak izateko aukerak handiagoak direla; beraz, interesa duenak badaki.

Naturarako itzulera moduan mendira joateko asmorik duenarentzat, berriz, bada aukera aurtengoan ere. O.K.E.ko Mendi Saila 95erako mendi

irteerak ari da prestatzen jadanik eta gutxi barru jakingo da egutegia. Gainera, herritarrek kanpora eginiko ibilaldiei buruzko diapositiba eta bideo emanaldiak ere ari dira antolatzen, hala nola Afrika edo Alpeetara eginkoak. Olentzerok ezer ekarri ez zionari azken aukera gelditzen zaio Erregeei gutuna idatziz. Halaxe egin dugu geuk ere, baina ez da ahaztu behar zoriontsu izateko biderik onena jadanik daukaguna eskatzea dela, edo gutxienez, eskatutakoa lortzeko lanari ekitea. Hala izango al da aurten.

Iñaki Leturia

Oiangu Pilota Eskola puri-purian

Elkarte sortu eta eratu berri hau hasia da txapelketak jokatzen. Gipuzkoakoa oraintxe bukatu da eta emaitzak itxura antzekoak izan dira: pala motzean handitan finalerdietara eta jubenil eta juniorretan finalera iritsi dira, jubenilak txapeldun geratuz. "Lehendik bazegoen lanean zebilen jende bat hemen, baina hutsune bat zegoen, erremintan batez ere; prestaketa fisiko aldetik ere berdina gertatzen zen. INEFeko lizentziatu batzuekin hitzegin ondoren, gauza serioa sortzea erabaki genuen", diote Albisu eta Gaztañaga juntakideek. Eskolakoei astearte eta osteguna entrenamendu fisikoetarako erabiltzen dituzte eta asteazken-ostiralak pala eta paletan aritzeko.

Oiangukoek gero eta jende gehiago somatzen dute frontoian palaz, eta beren eragina ez dizute ukatuko; antolatut zuten txapelketa batean 54 gazte-bikotek parte hartu zuten. Jende berria ari da sartzen, beraz, mundu honetan. Paleta eta pala motzean bakarrik ibili arren ez dute baztertzen aurrerantzean gainontzeko espezialitateak jorratzea. Jasotzen duten subentzio bakarra udalletxetik dator: 150.000 pzta.-urteko. Lehen aipatutako Euskal Ligaren 2. fasea dute orain helburu eta hor Gipuzkoakoan 3 lehenengo izandakoek har-



tuko dute parte. Aurtengoa lehenbizikoa izan denez, eta goren mailako txapelketa denez, izugarritzko lorpenetat daukate. Lanean segi eta Ordizia Hiria torneoko maila igo, pilota astea antolatu, mahainguruak, e.a. dira beren asmoak. Goierriko pilotarien kategoria begibistakoa da.

"Asegarce" e.a.-i buruz, "afizionatu mailakoei ez diete kasu handirik egiten. Guk behin edo behin tanteoren bat egin badiegu ere, ez dugu laguntza handirik lortu", diote. Beste kirolen "izar"ekin konparatuz, pilota 2. mailara zokoratzen dute euren ustez. "Ez dago azpiegiturarik, ez arautegirik. Enpresa txikiok beheko mailan lan egiten dugu eta bakarren bat goi-mai-

lakoa ateratzen bada, 'lepotik hartu' eta eramaten dute. Hontzako 'txoiloa' izango da, baina lan egin dugunontzat ez". Prentsan azkenaldian "Deportivo"ko ikusleek egin-dako kritiken aurrean, solaskideak ez daude batere ados, horiek bilbotarren kontuak omen dira. "Beraientzat ezkerre edukitzea ez da pelotari izatea palan, eskubia bakarrik eta punto. Orain askoz palista hobeagoak ateratzen dira", diote. Espektakulu gehiago dago gaur.

Pilota-enpresek hartu duten indarra positibotzat daukate, pala hilda baitzegoen eta inor ez zen joaten frontoietara zegoen materiala-rengatik. Inoiz baino maila gorenagoa dago egun, behar bada Mundialak izan direlako. Nahiz eta orain arte kanpaina berezirik egin ez duten gazte-jendea erakartzeko, hemendik aurrera badute halako asmorik. Ea laister betetzen diren beren nahiak.

Irrati berria: "Potto"

Jakintza Ikastolako Euskaraz Bizi taldeak bultzatuta, "Potto" irrati entzuteko aukera dugu goierritarrok honetako FM 105.5 inguruan. Zorte eta urte berri on!

Aitor Calvillo

GOIERRITARRA



88 96 12

KOIOTE

T A B E R N A

Zaldizurreta BEASAIN
Etxezarreta k. ORDIZIA

AMONANE

Nagusia 30

ORDIZIA



Dominguez

Urdaneta, 37

Aseguruen aholkularitza tekniko

Bizitza aseguroetan espezialduak (Zure kasua aztertuko dugu). Aurkezte eta erretiro planak

☎ 16 10 97
ORDIZIA

Eta orain ORDIZIAN:

MAROTIAS

TXIRRINDUAK

Konponketa eta salmenta
Edozein moztako txirrinduak

Filipineta kalea, 22
ORDIZIA

☎ 16 16 25

Aconcaguara bizikleta eta guzti

Aitzol Telleriak eta Felix Goiburuk dena prest dute urtarilaren 3an Hego Amerikako gailurrik altuenari (6.959 m.) ekiteko. Mendozan lur hartu ondoren, hurbiltze bidea, ahal den neurrian, bizikletaz egin nahi dute, beraien asmoa Aconcaguaren jeitsiera bizikletaz egitea baita. Egokitze fasea urtarileko lehen hamabostaldian Aconcaguaren magalean bertan egingo dute, mantso eta presarik gabe, hilaren 15 eta 20a bitartean tontorra heltzen saitzeko. Itzulerako hegazkina 29an hartuko dute. Prestakuntzaren

aldetik, azken asteotan xuabeago aritu dira oso kargatuak ez ailegatzearren. Baina urte hasieratik ibili dira inguruko mendi gehienetan, eta udan Mont Blanc ere egin zuten. Nikien salmentari dagokionez, bakarren batzuk geratu bazaizkie ere, uste bezain ondo joan zaie eta alde hortatik ere gustora daude.

Urte zahar goizez Aizkorrira, ibilaldi neurtua arratsalde

Duela 10en bat urtetatik eta Segura K.E.ko mendi sailak bultzatuta, urte



86ko urte zahar egunean Aizkorrin.



Jaurlaritzako Justizi Departamenduak giza eskubideei buruz antolatutako idazlan lehiaketan, Laiotz Herri Eskola (egileak Maider Legorburu eta Mirari Elorza) suertatu da irabazle. Saritzat eskurtsio bat zuten eta Bilbora joan ziren.

zahar egunean Aizkorritik buelta egiteko ohitura aurrean ere errepikatuko da. Adin guztietako 25en bat lagun elkartu ohi dira goizean irten eta eguerdirako etxeratuz. Aurtengorako 8,30etan herriko plazan gelditu dira, 12,30ak aldera herriratzeko. Elkarte berak antolatuta, urte zahar eguneko 4. ibilaldi neurtua egingo da 16.00etatik aurrera. Hasiera batean eskolako umeengan pentsatuz hasi zen, baina gaur egun guraso eta guraso ez diren askok ere parte hartzen dute, 300en bat lagunetara iristen den partaidetza izanik. Ibilaldiaren amaieran sari baten zozketa egingo da eta txokolate beroa izango da denentzat.

 Joseba Tellera



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoien tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 889350 Faxa: 880688

MIRENTXU LIBURUDENDAK

Berrikuntzaren ondoren berriro **Kale Nagusiko 1**ean ireki dugula adierazten dizue

Bide batez **Nafarroa Etorbidean** ere jarraituko dugula jakineraziz

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

☎ 881457 (Kale N.) 88 0455 (Nafarroa Etorb.)

BEASAIN

LOPETEGI AUTO ESKOLA GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 882174
☎ 651117

BEASAIN
TOLOSA

Usurbe Antzokia martxan

Hainbeste denbora itxaroten egon ondoren, abenduaren 23an inauguratu zen Usurbe Antzokia. Inaugurazio ofiziala eguerdiko 12.30etan izan zen, bertan Beasaingo alkate ohiak, elkarte ofizialetako ordezkariak, Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Kultur diputatua, antzokiaren arkitektoa e.a. izan ziren. Inaugurazioa Jose Luis Arriola alkatearen eta Kultur Diputatuaren esku egon zen. Herriko parrokoak antzokia bedeinkatu ondoren, gonbidatu guztiak aretoa ikustera pasa ziren, eta ekitaldia hamaiketako batekin amaitu zen.

Iluntzean berriz, herriko kultur talde ezberdinek parte hartu zuten ekitaldia izan zen. Txalaparta, antzerkia, dantzariak, txistulariak, soinujoleak, eta bertsolarien kritikak izan ziren nagusi. Loinatz abesbatza, Jesus Saiz bertako partaidearen heriotzagatik doluan zegoen. Bere alabak ere dantza egin behar zuen egun horretan. Hemendik gure doluminak bere sendikoei.

Usurbe Zine Aretoa 1958ko azaroan inauguratua izan zen eta 1990eko uztailan itxi zen. 92ko azaroan eraikuntza bota, eta 230 milioietako kostuaz eraiki da berria. Diputazioak 100 milioiko dirulaguntza eman du. 425 eserleku ditu eta zine emanaldien sarrera 450 pezetakoa izango da (haurrena 300).



Antzerkia bultzatu nahirik

Ostiraletik astelehenera izango dira zine emanaldiak eta ostegunetan, zine-kluba eta antzerkia tartekatuko asmoa dago. Arantxa Aseginolaza kultur zinegotziaren arabera, Diputazioaren antzerki sarean sartzeko asmoa dago Ordiziako antzokiarekin elkarlanean. Otsailean hasiko lirateke antzerki emanaldiak, baina eguna zehazteke dago oraindik. Momentuz, 6 antzeslan emateko eta abonatu bereziak kaleratzeko asmoa dago.

Bestalde, kultur ekintza alternati-

boak antolatzeke orduan izango diren zailtasun ekonomikoak mahaia- ren gainean jarri nahi izan zituen Aseginolazak. Ekitaldiaren gastua, antzokia alokatzea eta 400 bat ikuslerentzat lekua dagoela kontuan izanik... aldeztu aurretik ondo pentsatu beharko dira gauzak. Bukatzeko, esan, HBk bere desadostasuna agertu duela Usurbe proiektuaren prozesu eta emaitzarekin.

 Izaskun Salazar

ITZALA Taberna

Zaldizurreta 3 BEASAIN
Tfona: 88 30 24



Zaldizurreta, 5


BEASAIN

SAIOA taberna

*Giro on eta jatorra
"Festa onak pasa!"*

☎ 88 06 02
K. Nagusia, 33

BEASAIN



Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN



Eskolaumeen antzerki saio ederra

Herriko eskolaumeek Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzuak eman ohi duen dirulaguntza dela eta, urtero prestatu ohi dute antzerki saioaren bat herrian bertan eta inguruko beste bi herritan antzezteko. Aurtengo ikasturte honetarako aukeratu duten antzerkiaren izenburua "Lau ipotxen bizimodua" da eta abenduaren 17an izan zuten lehenengo antzezpena, hain zuzen ere, Kultur Etxeko aretoan.

Antzezleak eskolan dabilzan haurrak dira, gehienak oso gazteak, 3 urtetik hasi eta 10 urte artekoak baitabilza eskolan, eta, hala ere, ikusi egin behar da nolako ilusioa eta ahalegina jartzen duten euren lana ahalik eta ongien antzezteko. Bestalde, herriko jendearen erantzuna ere bikaina izan zen, hori dena eta gehiago merezi baitu haur horien ilusioak.

Aurreko urteetako lanekin alderatuta, beharbada, jantziak aukeratzeko eta prestatzeko egin duten lana azpimarratu



Eskolako antzezle gazteak ilusioz beterik.

beharko litzateke. Izan ere, haur-hezkuntzakoek antzerkian zehar parte haundirik hartzen ez badute ere, euren jantziei esker beharbada orain arte izan ez duten erakarpina lortu baitzuten.

Zorionak antzezle gazte horiei eta era

berean hauek prestatzen aritu diren mai-su-maistrei eta ea sarriago eskaintzen dizkiguten horrelako saioak.

Gabino Murua

ZALDIBIA

Jauregi eta Sukia txapeldun

Aritz Jauregi eta Aitzol Sukia atera dira txapeldun, jubencil kategorian, klubaren arteko Gipuzkoako lehiaketan. Añorgako Oioaga eta Uzkudunen kontra jokatu zuten finalean 22 eta 21 irabazi ondoren. Final gogorra, hain zuzen ere, 105 minutu iraun zuelarik. Hasieran Añorgakoak ibili ziren aurretik, baina azkeneko tantoetan zaldibitarrek gehiago izan ziren. Lau pilotari ere ondo jokatu zuten, bestalde. Bikote honek Euskal Ligan hartuko du parte, Gipuzkoaren izenean. Zorionak eta segi horrelaxe. Era berean, aipagarria da lehiaketa berean, kadete kategorian, Iraola eta Eskisabelek lortu duten 3. postua. Laster jakingo da hauek Euskal Ligan parte hartzerik izango duten ala ez.

Fotokopiagailua

Azkeneko urteotan, herrian beste inon ez zegoela eta, Udalak eskaini izan die herritarrei fotokopiagailu zer-
22-GOIERRITARRA

bitzua. Orain, ordea, Txaronean jarri dute fotokopiagailua. Hori dela eta, hemendik aurrera Udalak, bistako arrazoiengatik, ez du zerbitzu hori eskainiko.

Urrezko ezteiak

Joan den hilean bi matrimoniok ospatu dituzte gure herrian urrezko ezteiak. Alde batetik, Olaako Lontxo Sukia eta Mertxe Arrubarrenak; eta bestetik, Manuel Pita eta Balbina Fernandezek. Zorionik beroenak luzatu nahi genizkieke nola batzuei hala besteei. Besteak beste, badakizue Lontxo famatua dela harrapatu izan dituen hainbat piztiarengatik.

Udal zerbitzuak

Oraindik denbora asko ez dela, udal-letxeko langile bakoitzak bere lana garbi izendaturik zuela esaten genuen, eta laster jakinaraziko zigutela udal-letxetik paper, ageri edo zernahi behar dugun herritarrok norengana jo. Uda-

lak publikatu du zerbitzu taula hori. Ziurtagiriak eta kontsulta orokorrak Begoñak atendituko ditu, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara. Alkatetza: alkateak, astelehenetik ostiralera, 12:30etatik 14:00etara. Idazkari, interbentore eta gerentetza: Mari Solek, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 17:00etara. Hirigintza: zinegotzi arduradunak eta teknikoak, astearte eta ostiraletan, 9:00etatik 14:00etara. Diru-bilketa: Nekane, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 17:00etara. Gizarte-laguntza: Mari Josek, astelehen eta asteartetan, 9:00etatik 14:00etara. Bake-epaitegia: Sarak astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00ak arte.

Behar dugun hura eskuratzeko eskaerak bi eratara egin litezke: telefonoz deitu edota bertara joan. Jasotzeko, jakina, udal-bulegora joan behar da.

Rufino Iraola

Joxemiel Barandiaran Museoa

Joxemiel Barandiaran Museoa aipatuz hasi genuen urtea GOIERRITARRAN: Murkondo kultur elkarte sortu izana, honen helburua, Ataunen Joxemielen izenean museo ireki bat antolatzea zela jakinaraziz; Udalak, Joxemiel Barandiaran Fundazioko partaide den aldetik, museoa egiteari buruz Fundazioan bertan aurkeztutako proposamena bideratu izana gogoratuz; eta asmo bera duten beste hainbat pertsona ere bazela esanez. Adibidez, Santi Etxeberria herritarrek ordurako aurkeztua zuen bere proiektu zehatz bat...

Oraingoan, duela urtebete, abenduaren 28ko plenoan erabakitakoaren ondorioa dugu berri. Orduan, Udalbatzak K6 Kultur Gestioa-ri adjudikatu zion museo-proiektuaren erredakzioa eta Udalak bere esku du dagoeneko elkarte honek burutu duen proposamen-zirriborroa. Joxemiel Barandiaranen nortasuna eta emaitza bere baitan hartuko lituzkeen egitasmo honi "Joxemiel Barandiaran Zentroa" deitu diote. Etorkizuneko zentroaren ardatzak proposatzen dituen agiria, udaletxean dago edozein ataundarri azaltzeko pronto.



Lore-eskaintza

Joxemiel Barandiaran hil zela hiru urte bete dira. Eta jaio zeneko 105. urtebetetze egunean, abenduaren 31n, lorak eramango zaizkio bere hilobira eguerdiko 12etan, Sara etxetik onez joanez. Honenbestez bukatutzat emango ditu Joxemiel Barandiaran Murkondo kultur elkarteak, aurtengo ekitaldiak. Bestalde, elkarte honek eskolumentzat antolatutako ipuin lehiaketan, hauek izan dira irabazleak 3 mailetan: Eli Agirre, Laida Begiristain eta Intza Barandiaran.

Ataun Kirol Elkarteak

Areto futbolearen aurtengo denboraldian estreinatu diren bai neska eta bai mutilen taldeek oso emaitza onez eman diote hasera. Mutilak 3. kategorian kokatu zituzten eta 2. gora igotzeko lehen

baldintza gainditu dute: aurreneko fasea bukatu ondoren, hurrengorako klasifikatu dira.

Neskei dagokienez, hauek hasera-haseratik puntan dabilta. Sailkapen taularen lehenengo postuan ageri dira eta pixka baterako ikuskizuna ziurtatua digute. Hitz batez, gaizki ohitu gaituztela. Orain partiduak ikustearekin ez dugu nahikoa; irabazle nahi ditugu.

Urte berri on

Eta gezurra badirudi ere, urte zaharra joan zaigu. Honenbestez 23 aldiz izan gara txoko honetan aurten, herriko zenbait gauza aireraturaz. Askoz gehiago izan dira ordeak, toki faltaren ezinean aldamenen utzi behar izan ditugunak. Eta honek gauza bera gogora arazten digu behin eta berriz, alegia, herriko berri izateko ditugun baliabide urriak. Eta nostalgiaz, "Nondik" aldizkaria datorkigu burura. Hiru urte, harenak ere egin zituela.

Baina hau hurrengoan aipatuko dugu. Bitartean, daukagunari eusten saiatuko gara. Gero eta hobeto. Zuen baimenez. Urte berri on.

Joxe Begiristain

LOINATZ Taberna Jatetxea

Bazkari, aitari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUA

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 BEASAIN

ALUMINIOS



EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafra normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66
Bulegoak: ☎ 88 93 50
Faxa: 16 02 91

10 Poligonoa
34-36 Pab.
BEASAIN

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak
zure sabelak esker-
tuko duen menua
eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti-
ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000
pzta. + BEZA

Toki mugatua dago,
eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI



tarako trebeziaz gain gaztaina erreak ere banatzen dituzte, borondatez emandako txanponen truke. Liburu eta diskei dagokienez, lehen goez gain ospatu berri den Durangoko azokan aurkeztutako berri-berriak ere hortxe izan ditugu.

Erosi gabe ezin irakurri, baina erosi eta apaletan hautsez betetzen ez ditza-gula eduki liburuak...

Gozokeritan

Trufak, turroia, mazapana, intxaur-saltsa eta konpota; Gabonetako pos-treen ikastaroan Gerriko Txokoko su-kaldean, gozo-festan, musu-gorrituta eta umorez hortxe aritu dira 24 bat la-gun. Trufak, turroia eta mazapana mundu zabalean hainbat lekutan jaten badira, intxaur-saltsa eta konpota Eus-kal Herriko sukalde txokoetako pos-treak direla esan behar.

Liburu eta diska azoka

Ospatu berri da Euskal liburu eta Disken V. azoka. Liburuak eta diskak Gerriko liburutegian ipintzen ditu eta erosleri %10eko deskontua egiten zaio, diferentzia hori Udalak ordain-tzen duenari. Saltzaile-lanetan aritzen direnak ere ez dira "profesionalak" izaten; San Benito Ikastolako BBBko gazteek erakutsi ohi digute matemati-ketan trebeak direla. Eta matematike-

Lazkao Txiki

Aurreko alean agindu bezala hemen gatzokizue Lazkao Txiki omenduz egingo diren ospakizunen berri ema-tera. Urtarrilaren 7an, larunbata, gaue-ko 11etan, Kiroldegian jaialdia izango da. Hiru zutabe nagusi izango ditu jaialdiak: alde batetik Jon Azpillaga, Joxe Agirre, Jose Luis Gorrotxategi, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Soroazabal ber-tsolarien saioa, bestetik Antton Val-verde kantariak Lazkao Txikiren ber-tsoak kantatuko ditu pianoz lagunduta eta bideoak ere emango dira: Lazkao Txiki gogora ekarriko diguna bata, To-mas Ugartemendia eskulturgileak egindako irudiaz bestea eta Goierri- buruzkoa hirugarrena. Saioa Euskadi Irratiko esatari diren Arantxa Artza eta Jon Aizpuruak aurkeztuko dute. Sarre-

ren prezioari buruz, 20 urtez behekoek 500 pezeta eta gorakoek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute.

Eta hilaren 8an, Lazkaon Astotxo Eguna, urteroko Zawopiko gazteen emankizunaz gain, Tomas Ugarte-mendiak egindako irudia Zelaian jarri eta inauguratuko da. Igande eguerdiko ekitaldi honetan dantzari, txistulari eta bertsorik ez da faltako eta aho-gozoga-riak ere izango dira.

Beraz, urtariletik aurrera geure ar-tean present izango dugu Joxemieli; ez dezagula berak egindako lana ahantz eta geure bihotzean ere lekutxo bat be-tetzen jarrai dezala.

Beleren, beleren, zakua bete lehenbailehen!

Ohitura zaharrari eutsiz eta Amnis-tiaren Aldeko Batzordeak deituta, Ga-bon kantak entzun genituen 24ko arra-tsalde eta iluntzean auzoz-auzo eta ka-lez-kale gure herrian. Goizean umeen txanda izan zen eta bi ikastetxeetakoak gogor saiatu ziren Olentzero gogoratu eta alaitzen.

Alde alaia eta tristea, gehiegikeria eta falta, ezin kabitua eta hutsunea be-rarekin dituen urte-sasoi honetan, ohi-tura zaharrei eutsiz baina neurrian ibi-liz, urte berriak berri onak ekar diezaz-kigula. Datorren urtera arte!


 **Mari Joxe Madariaga**



BEHERAPENAK

BEHERAPENAK


**Zure
bakero
denda**



☎ 88 94 09
S. Inazio, 1 BEASAIN

**Ñañarri
taberna**

Kale Nagusia 15 BEASAIN
☎ 88 06 59



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfona: 88 77 90 Faxe: 88 82 67
Mallotz- 25. Pab. ORDIZIA

GOENAGA GESTORIA

Urte berri on!


J. M. Iturrioz, 6 behe BEASAIN
☎ 16 00 65 - Faxe. 16 03 59

Iker Sukia pisu jaurtitzalea: etorkizuna begi bistan

Iker Sukia Esnaola ataundarrak, Donostiako Real Sociedad-eko atletismo saileko elastikoa izango du soinean denboraldi honetan. Bi urtez kadete mailan Ordizia Kirol Elkarteko partaide izan denak, junior kategoria Donostian estreinatu berria du joan zen asteen, ezbeharrez sorbalda atera eta denbora batez pistetatik aldendua izan ondoren.

Iker Ataunen jaio zen 1978ko urtarrilaren 24an eta Joxemiel Barandiaran Eskolan 3. kurtsoan ekin zion kirolari gainontzeko umeekin batera. Urteak joan ahala, korrika, futbola, altuera jauzia... eta pisu jaurtiketa ezagutzeko aukera izan zuen, eta halako batean pisu jaurtiketara bideratzeko aholkua luzatu zion Pako Urrestarazuk, oraindik ere Ataungo eskolako kirol hezitzailea denak. Ordurako noski, Ikerrek gustokoa zuen kirol mota hau eta harrez gero atletismo alor horretan berak egin duen bidea, harrigarria da.

Hona hemen azkeneko bi urtetako emaitza nabarmenenak: 1993an Gipuzkoa eta Euskadiko txapelduna Donostiako belodromoan, 5 kiloko pisua



15,58 metrotara jaurtiz, eta Espainiako txapelketan irabazle Valentzian, bietan ere, pista estalian. Urte berean, Euskadiko errekorra bereganatu zuen bi aldiz segidan, azkenekoan 16,94 metroko jaurtiketaz, estalirik gabeko pistan, eta Espainiako txapelduna izan zen Malagan, baita ere aire librean egindako proban. Urtea bukatzerako, 93ko abenduaren 18an Espainiako errekorra gainditu zuen Donostian pista estalian, 5 kilokoa 17,84 metrotara bidaliz. Aurten, urtea hastearekin batera, 94ko

otsailaren 26an, bi hilabete lehenago berak lortutako Espainiako errekorra hautsi zuen Donostian bertan, pisua 18,24 metrotara jaurtiz, bide batez bigarren sailkatuari 4 metro t'erdiko aldea ateraz, Gipuzkoa eta Euskadiko txapela irabaziz. Geroztik, lehen aipatu bezala, lesionatua izan da eta hainbat probatan parte hartze-
ra ezindua.

Beraz, 18,24 metrotako jaurtiketa hori azpimarratuz, atera kontuak oraindik junior kategori berrian hasi besterik ez den 16 urteko Ikerrek zer eskeini diezagukeen maila berean izango den datozen hiru urtetan. Emaitzak hor dau-
de; orain arteko lanaren pro-
gresioan antzeman daiteke, Ataungo herriak izan duen kirolaririk sonatuena izango denaren aurrean gaudela.

Bera gustora dago fitxa berriarekin eta guk zoriondu eta orain arte bezala bere berri onak emateko aitzakiak eskeintzeko bideak urratzen segi zezala opatu genion, bere nahia ere horixe zela erantzun zigularik, irrifartsu.

Joxe Begiristain

Bi lerrotan

☐ ZORIONAK MARRON!

Mendizale ataundarrak kontinente bakoitzeko mendi garaiena igotzeko bere saioa bukatu du. Ramon Agirrek duela gutxi igo du 6.960 metroko Aconcagua mendia Argentina aldean. Mundu mailan igoera hauek lortzen dituen 26. mendizalea da eta gainera denbora gutxienean egin duena. Baina berak dioen bezala garrantzitsuenak ez dira errekorrak, bertan ezagututako jendea eta bizitako ezperientziak baizik.

☐ JOKIN SARASOLA

ITSASONDOARRAK (66 urte) eta J.M Ugartemendia (56 urte) tolosarrak korrika apustu izugarria jokatuko dute urte zahar egunean Tolosako Zezen Plazan. Horretarako, 8.000 m. edo 80 itzuli 'anillo' osatu beharko dituzte. Jokuan, milioia izango da.

☐ SAN SILBESTRE KRO-

SAK izango dira aurten ere. Beasainen eguerdiko 12etan izango da eta Ordizian arratsaldeko 5etatik aurrera. Legorretan ere urtezahar goizean

krosa izango da Bilkoin elkarteak antolatuta eta bertan parte hartzen duten guztiei piku zorro bana oparituko zaie.

☐ ATAUNGO 'PEÑA GORRIZ'-EKIN BILBORA

joateko aukera du hala nahi duenak, urtarrilaren 8ko Athletic-Real derbya ikustera. Ataundik aterako da autobusa. Bidaia 1.000 pezeta kostatuko da eta sarrerak aparte erosi beharko dira. Guztia, Troskaeta tabernan eskura daiteke. Telefonoa: 180037.

Lazkao Txikiren pasadizoak

'Lazkao Txiki, gizon txikiaren haunditasuna' liburua kaleratu berri du Erein argitaletxeak. Lazkao Txikiren ilobek, Joxemiel Mendizabal eta Miel Antton Barandiaranek, hainbat eta hainbat pasarte ezagun eta ez hain ezagun, familia memorian jasotakoak kronologikoki kateatu dituzte, Lazkao-Txikiren biografia orokorra osatuz. Bertsolari handiaren ezagutzarik ez zutenei ezagutarazteko, eta ezagutzen zutenek bere pasarteak gogora ditzaten dago pentsatuta. Haurren sailean argitaratu bada ere, Erein-en desafioa, euskaldun zahar ez alfabetatuarengana iristea da. Guk hemen, gazte eta soldaduska garaiko zenbait pasarte dakartzizuegu, urtea umore puntuz buka dezazuen.

Mutikotan

Mutil gaztea zela, Lazkaora enkarigu bat egitera joateko agindu omen zion aitak. Joxemiel bizikletan ibiltzen ikasi berria zen nonbait, eta, jakina, bizikleta hartantxe joan nahi zuen.

Lehen baserrira ez zen kaminorik, eta auzoko eskolaraino gurdibide edo bidexidorretan behera joan behar izaten zen; eskolatik behera hasten zen bidea.

Joxemielen ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren, ordea; aitaren esanera errenditu behar, errietan hasi zenean:

-Gaur oinez joango haiz eta kitto! -esan zion aitak zorrotz.

-Bizikletan ondo ikasi dut eta bizikletan joan nahi dut nik- esan zion Joxemielek.

-Ezta pentsatu ere! Mina hartuko duk eta oinez joango haiz gaur! -esan zion berriro aitak, erabat haserreturik.

Joxemielen ametsak hantxe bukatu ziren. Txistu batean alde egin omen zuen etxetik. Bidean, berekaxa mar-marrean zihoala, auzoan azken-az-



kenean dagoen baserriko etxatarian, hara non ikusten oilartzar bat oiloaren gainean isatsa gora eta behera astinduz.

Joxemielek oilartzar hura ikusi zuenean, ondora inguratu eta ostikoz danba!, oilarra aidean bota eta zera esan omen zion:

-Ni oinez eta hi eserita...? Hi ere joan hadi oinez, ni ere halaxe nihoak eta...

Talla txikia

Soldaduskara Ceutara joan baino egun batzuk lehenago, zera bota zion lagun batek:

-Hi, Joxemiel! Talla horrekin joan behar al duk soldadu?

Eta Lazko Txikik horrela erantzun zion bizkor eta zorrotz:

-Honekin joan beharko diat, besterik ez zeukeat eta...

Euskaldun baten estuasunak

Beste behin, erdaraz ez zekien euskaldun gazte bat joan zen soldaduskara. Egun batean, komandanteak galdera batzuk egitera etorri behar zuen.

Mutil hau larri zebilen, eta zera esan zioten lagunak:

-Zu egon zaitez lasai, hiru galdera bakarrik egingo digute denoi. Lehenbizikoa, ea zenbat denbora daramagun

soldadu, eta "sei hilabete" erantzun behar diegu; gero, zenbat urte ditugun, eta hogeita bi urte ditugula erantzun behar da; eta azkenean, garbanzuak ala arroza, zein gustatzen zaitugun galdetuko digute, eta "biak" erantzun behar diegu.

Mutilak hiru erantzun horiek buruz ikasi eta komandantea etorri zenean, horrela galdetu omen zion erdaraz:

-Buenos días, cuantos años tiene?

-Seis meses- erantzun zion lasai-lasai mutilak.

Komandanteak aurpegi txarra jarri omen zion, baina hala ere galdetzen jarraitu zuen:

-Cuanto tiempo lleva en el servicio militar?

-Veintidos años.

Eta militarrek sutan:

-Usted por que me ha tomado, por bobo o por tonto?

Eta mutilak:

-Las dos cosas.

Debekuak eta isunak


Behin Azpeitian, Joxemieli gai haxe jarri zioten: "Ezkundu aurretik haurdun gelditu zara eta ezkondu eta laster izan duzu haur hori".

Joxemielek, hori Madrilen ere gertatzen zela esan zuen bertsotan; izan ere, Francoren iloba batek haurra horrela izan baitzuen. Ondoren, denuntzia etorri zitzaion, erdaraz noski, "por insultos a la nieta de su Excelencia".

Zortzi hilabetez kantatzea debekatu, eta gainera garai hartako hiru mila pezetako multa jarri zioten.

Guardia Zibilen koartelera ordaintzera joan zenean, honela esan omen zien Lazkao Txikik:

-A mi por decir me echan multa, y los que lo han hecho, estan en la carcel o que? No es peor hacer que decir?



Ezkerretik eskubira:

1. Zenbait herrialdek bere lurraldeak banatzeko duten era berezia (Adib: Suitza).
2. Euriaz babesteko toki aproposa. Joan den urtean.
3. Gisu, kaltzio oxidoa. Araban indartzen ari den partidu

politiko erregionalista. Idor, lehor, zimel.

4. Euskal dantza mota (bi hitz). Guztiak, denak.
5. Kontsonante bikoitza. Beasaindar. Fosforoa. Telebista laburtuta.
6. Judu-legearen doktore.

Baserriko lanabesa. Oxigenoa.

7. Ustezko GALKidea izateagatik epaitu zuten pertsonaia famatua. Suitzako ibaia. Kanpo.

8. Euskal abeslari baten izena. Aurkakoa, kontrakoa.

9. Gaztelaraz, Nortasun Agiri Nazionala. Tripa, barru. Kontsonantea.

10. Alderantziz, musika nota. Landare mota, otaka. Bare, lasai, trankil.

11. Goierrieraz, urtero betetzen ditugun horiek. Afrika iparraldeko mendikatea.

12. Berak bakarrik baliorik ez daukan zenbakia. Sinatzen duena.

Goitik behera:

1. Intsektu mota, arkamelu. Oxigenoa.
2. Ondorio, eragin, etekin.
3. Izenordea datiboan deklinatuta. Guztietan. Real So-

ciudad.

4. Trenak ibiltzen direneko tokia. Musika jaialdi ospetsua.

5. Herronka-hotsa. Bokalerrepiatua. Zero. Apurtu, puskatu.

6. Tamainu, luzera. Kontu, ubide, erreten.

7. Lehena. Familiarte, be-larriandia. Tona.

8. Musika nota. Nitrogenoa. Argentinako Ahaideen El-karte Anonimoa. Lehena eta azkena.

9. EAJ inguruko gazte taldea. Argi-bolada.

10. Ni nire gurasoei oso gustora... (egon). Anperioa. Bokala. Mahomaren suhia.

11. Kolpe zitalaren onomatopeia. Alderantziz, esku-zabala.

12. Uranioa. Automata. Kontsonante izena.

Egilea: Ordiziako Aitor Calvillo

Fotozaharra



Zegamakoa dugu argazki hau; 'Cara al Sol' himnoaren egile zen Juan Telleria zegamarrari eginiko monumentuaren inaugurapen eguneko hain zuzen ere. Inaugurazioa Francoren diktadurapean egin zen eta argazkian, Erregimeneko 'plana mayor'-a agertzen da.

Andoni
EGAÑA

Angel Mari
PEÑAGARIKANO

Jokin
SOROZABAL

Iñaki
MURUA

Mikel
MENDIZABAL

Jon
SARASUA

1995 URTARRILA

ORDIZIA
Polikiroldegian. Arratsaldeko 6etan

Jabier
ZEBERIO

Sebastian
LIZASO

Gai jartzailea:
Nikolas
ZEBERIO

1 Igandea

Antolatzailea:
ARGI BERRI elkarte
Babesleak:
Ordiziako Udala eta Egunkaria.



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEKO
BAZKIDE IZAN NAHI DUT NIK ERE

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA.....TELEFONOA.....

BANKETXEA.....BULEGOA

KONTU KORRONTE ZENB.

(1.500 PEZETAKO KUOTA/URTEKO)

BIDALI "GOIERRITARRAK K.E." 124. P.K. ORDIZIA

Eman eta zabal zazu

GOIERRITARRAK
KULTUR ELKARTEA da es-
kuetan izaten duzun GOIE-
RRITARRA aldizkariaren edi-
torea, jakingo duzunez. Kultur
Elkarte hau bultzatzeko (eta bi-
debatez debalde jasotzen duzun
hamabosterokoa sendotzeko)
kanpaina bati ekin diogu, Goie-
rriko kultur ondarea denon ar-
tean bildu eta goratzeko asmoz.

Idea faltarik ez eta eginki-
zun ugari ditugu aurrez ikusi-
rik: Goierriko herrien gehigarri
bereziak, liburuak argitaratu

udalekin, kultur elkarte eta jendeekin bat eginik, ekintzak antolatu, e.a. Asmo honekin ados baldin ba-
zatoz eta laguntzeko borondate hori baduzu, "Goierritarrak" K.E.-a indarberritzea nahiko bazenu, bete
ezazu ondoko bazkide txartela eta bidali iezaguzu.

Oharrak: honek ez du esan nahi aldizkaria ordaindu beharra dagoenik; dena den, harpide ezezik
bazkide egingo bazina, mesede haundia egingo zeniguke euskaltzale goierritar guztioi; bestalde, bazki-
deek eskubide batzuk izango dituzte: opariak, liburuak eta kamixetak jaso, ekintzetan partaide izan...